


# Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2001eko ALE BEREZIA ● 219. zka.



ANDRAMAIXAK 2001



# Aretxabaletako Udala



*Jaiak ondo baino  
hobeto pasatuko  
zenituztelakoan  
datorren urtera arte*



## Ze moduz Andramaixetan?

## Ze da gehixen eta gutxien gustau jatzuna? Gomendixoik?



Joakin Guruceaga

Ondo, jaixetan beti ondo. Ikusteko asko egon da, baine hirugarrenien izen ezik jentiek parte gutxi hartu dau.



Anabel Iturbe

Oso ondo. Andra Mari eguneko Edu Muruamendiarazen koreografia asko gustau jaten. Gutxien, barrez, zezenak, asko irauten daue eta.




Jon Izagirre

Ondo. Gehixen lehengo eguneko dantza saieue gustau jaten. Bestela, zarata apur bat bota dot faltan, txarangak esaterako.



Anita Aretxaga

Oso ondo. Kantuek eta dantzak gustau jat gehixen, gutxien, barrez, zezenak. Egunien ziber animaziño gehixau falta da, txarangak.



Gorka Arbulo

Ondo. Barrakak gustau jat gehixen, eta buruhandixak gutxien ez dauielako joten.



Maite Galdos, Ainhoa Elorza, Lur Gurrutxaga

Ondo. Kuadrilen eguna izen da polittena. Ez gauke ezer aldatuko.

## Aretxagazeta

219. zenbakia. 2001eko Andramaixetako ale berezia.  
Durana 11, 151 postakutxatila.  
ARETXABALETA.  
Tel: 943 79 86 21.  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@goiena.com

Argitaratzailea: Aretxabaleako komunikabideak-Loramendi elkartea.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduraduna eta kazetariak: Amagoia Lasagabaster, Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

Publizitatea: Ziortza Martin

Ale honetako argazkilariak: Mirari Altube eta Kepa Errasti.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroibe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguilu, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkartea, Zarea mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.  
Tirada: 1.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaleako Udala,  
Gipuzkoako Foru Aldundia eta  
Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren laguntzaz

## BALTEZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroibe

Aretxagazeta



## Aretxagazetako postal lehiaketa zabalik



Postal ugari heldu zaizkigu Aretxagazetara, baina oraindik lehiaketa ez da amaitu. Leku askotako irudiak jaso ditugu: San Francisco, Australia, Egipto, Norvegia, Andaluzia, Cartagena eta baita gertuagoak ere Getaria, eta Eunatetik bidalitakoak esaterako. Ez dakizue zelako pozik jaso ditugun postalok.

Guztioi gure eskerrik beroenak eman gura dizkizuegu, urrutiko eta gertuko lekuak ona ekarri dituzuelako, eta batez ere, zuen oporretan Aretxagazetarekin gogoratu zaretelako.

Lantxo hori fin-fin egin duzuenon artean Hirusta jatetxean afari eder bat zozketatuko dugu. Saritua zein izan den hurrengo alean emango dugu jakitera, beraz, oraindik denboraz zaudete postal bat bidaltzeko.

### 2001-2002 EUSKARA IKASTAROAK

#### ESKAINTZA

Euskalduntze maila guztiak.  
Alfabetatze.  
EGA.  
Mintzarena lantzeko talde bereziak.  
Sakontze ikastaroak.

#### ERRITMOAK

Ordu eta erdi, 2, 3, eta 5 ordu.

#### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00

#### MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 3tik 21era.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.  
16 urtetik gorakoentzat.

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA



#### ARETXABALETAKO

Nafarroa, 2-4  
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
leintzeuskalteg@terra.es

#### ESKORIATZAKO

Intxaurtxueta, 10 • Tel.: 943 79 21 68







# Andramaixetako jai giroa argazkitan

Udak eman du dagoeneko hoberena. Aurtengo Andramaixak joan ziren, baina jaietako imaginak hortxe gelditu dira gure kamaran gordeta, betirako.

Aurtengo jaiak denetarik eman digute. Han eta hemen non denbora pasatu izan dugu. Batzuk txar-rangak bota dituzte faltan. Hirugarren egunean izan ezik zarata eta giroa falta zela esan dute herriko kaleetan. Andramaixa hirugarrenak beti

izan du xarma berezi bat, eta azken urteotan jai batzordeak eta kultura sailak egindako lantxoari esker, egun honek indar haundia hartu du. Ikusi besterik ez dago koadrilek jaiari eman dioten kolorea eta bizia. Gure erretratuek ez dute bizirik, baina bai ordea kolorea. Kolore biziko argazki horien bila jaietan fin-fin ibili ziren Mirari Altube eta Kepa Errasti. Hona hemen euren esku eta begiek jaso zituzten irudiak.



# abuztuak 14

A rtean atxabaltar asko jaietara heldu barik zeudela, kanpai jotzearekin eta mus txapelketarekin ekin zitzaien jaiari. Txapelketak zaletu ugari batu zituen plazara, batzuk jokatzeko asmotan eta beste batzuk jokoak ikustera. Txapela aurten etxean gelditu zen, Pello Zubizarretak eta Zabalok dotore jantzi zuten euskal oroigarria. Hauen aurkari gogorak Manu eta Benito izan ziren.

Ume eta gaztetxoek ere herriko plaza izan zuten jolastokia, eta nagusientzat bolatokia izan zen bilgune gauean. Han elkartu ziren bolo zaletuak, aurten onena Ituiño izan genuen.



■ Mus txapelketako irabazleak Pello eta Zabalo eta txapelunordeak Manu eta Benito



■ Plazan ez zen egon aspertzeko denborarik



■ Ez beldurtu, ez du ezer egiten eta

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKLI**

**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**HAURRAK**



UMEENDAKO  
MODA

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
943 77 14 86

**DOIKALSE**

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

**PAGALDAI**

*Opari denda  
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14





# abuztuak 14

■ Udaletxe aurrean ikurriñari agurra egin zitzaion urtero legez. Loramendi dantza taldeko dantzariak dantzatu zuten lehenengo, eta ostean, Anjel Bergaretxek, alkateak, pregoia irakurri eta txupinazioa jaurti zuen udaletxeko balkoitik.



■ Bolotan txapela Ituiñok jantzi zuen



■ Amalur trikitixa taldeak alaitu zuen gaueko giroa

ARGAZKI DENDA

## UrKiola

Herriko plaza, 5-behea  
Tel.: 943 79 39 20

Estudioa  
Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Argazki digitalekin lanak

Albunak  
Argazki kamarak  
Markoak...

## LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79





abuztuak 15



■ Aurten kalean gora joan ziren udalbatzako kideak alkate soinuaz lagunduta




■ Trintxerpeko bandak dotore jo zuen

Eguna goibel azaldu arren, txistulariek egunona eman zioten Andramari egunari. Udalbatza meza nagusian izan zen, baina aurtengoan Mitarte kaleko behin behineko egoitzan.

Trintxerpeko bandak kaleak girotu zituen lehenengo eta meza ostean plazan eman zuen kontzertua. Aulkiak erdi hutsik egon ziren aurtengoan, euria egin baitzuen.



■ Makina bat barre egin zuten Trapu zaharra antzerki taldearen kale animazioa ikusi zutenek.



## SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24  
20550 ARETXABALETA -Tel.: 616 965 795



# M MENDIOLA



## Debagoienerako zerbitzu ofizial berria

Tel.: 943 79 00 11  
Mugikorra: 629 79 00 22  
Fax: 943 77 16 25

Araba Etorbidea, z/g  
20500 ARRASATE  
Gipuzkoa

# Aretz

Taberna

- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Otartekoak
- Pizak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Oilasko erreak
- kazuelatxoak

### ORDUTEGIA:

Astehenetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera



Markole, 5 behea Tel.: 943 79 20 14 ARETXABALETA



Zure seme alaben heziketa integrala izan dadin...

musikarekiko sentsibilitatea  
ere garatu

Matrikulazio epea  
Irailaren 12tik 28ra



Zatoz Musika Eskolara!  
LEIZARRA MUSIKA ESKOLA



Astelehenetik Ostiralera  
arratsaldeko 5etatik 7tara  
Tel-Fax: 943 79 36 50

Jar zaitez profesional  
espezializatuen esku.

*Zure osasuna gure ardura da.*

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE  
ZENTRUA



### ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTHERAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru  
etxeekin lan egiten dugu:  
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,  
etab.)







■ Frontoia erraz bete zen herriko gazteen pilotaz gozatzeko

abuztuak 15

**T**rapu zaharra taldearen kale antzerkia eta herriko gaztekoen pilota partiduak izan ziren Andramari arratsaldeko ekitaldi nagusiak.

Gauean, ostera, bi ikuskizun eder izan genituen: Aukeran dantza taldea eta suzko erruerak. Dantza saioa arrakastatsua izan zen oso, eta suek ere xarma berezia eman zioten gauari. Antza danez, jendea gustura joan zen etxera.



■ Jendeak asko gozatu zuen Aukeran dantza taldearen emanaldiaz. Koreografia polita eskaini zuen taldeak

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 31 87

OSKAR  
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINGEGIA  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☐ 943 79 38 59



# abuztuak 16

**T**xirrindulari lasterketak eman zion hasiera Andramari bigarrenari. Lasterketa polita izan zen, eta Markel Irizar Olarra taldeko oñatiarra ihes eginda helmugaratu zen. Trialsin erakusketa, barrez, gauza barria izan zen guretzat. Ikuskezun bikaina eskaini zuten Iker Lezeta eta Alberto Gomezek.

Euskal presoan aldeko bazkarian jende mordo bat zen. Aurten plazako arkupeak aukeratu zituzten bapo-bapo bazkaltzeko. Fredi Paia eta Arkaitz Estibaldez bertsolariak izan ziren ondoren.



■ Jendearen txalo artean bakar bakarrik sartu zen Markel Irizar oñatiarra helmugan



■ Trialsin erakusketa benetan ikusgarria izan zen



■ Presoen aldeko bazkaria eta manifestazioa izan ziren egun honetan






# abuztuak 16



■ Zezena gora eta behera ibili zen Durana kalean baina bazterretara ere inguratu zen



■ Musika, argiak eta ikuskizuna nagusitu zen Hemendik At taldearen kontzertuan

**A**rratsaldeak era guztietako ekintzak eskaini zituen, gazteen bolo txapelketa, sokamuturra, Euskal presoaren aldeko manifestazioa... Sokamuturra ez zen oso animatua izan, gero eta jende gutxiago animatzen da zezenaren adarretara inguratzera, eta jende gehienak atarteetatik, balkoietatik eta hezi ostetik ikusi zituen zezenak.

Gauean pilota zaleen txanda etorri zen. Urtero letxe frontoia bete-bete egin zen pilotari profesionalen jokoa ikusteko. Gainera, aurten egun batean bakarrik izan genituen pilota partiduak. Lehenengo partiduko emaitza Beloki IV-Bengoetxea 22 Retegi VI-Nalda III 21 izan zen. Bigarrenean Berasaluze-Errandonea bikoteak 22-19 irabazi zion Nagore-Pascuali. Bi partiduetan emozioa azken unerarte mantendu zen. Zaletuak apostuak egitera ere animatu ziren, batzuk poltsikorako zeozer aterako zuten, beste batzuk, barrez, ez zuten zorte bera izan. Pilota partiduak jokatzen ziren bitartean, txosnetan Hemendik at taldeaz gozatu zuten gazteek, eta hain gazte ez direnek.

*Okindegia - Gozolegia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
 Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81  
 Arretxabaleta  
 Bertako okina



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
 Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



# abuztuak 17

Jaietako azkenengo egunak benetako jai giroa erakutsi zuen. Goizean goizetik koadrilak kalera atera ziren, eta egun guztian zehar kaleak kolorez bete zituzten. Hantagorri taldeak umeak erakarri zituen "Urbasako astronautak" antzezlanarekin.

Herri bazkaria edarto egon zen. Aurten, gainera, plazako arbola ederrek gerizpea eman zieten han bazkaltzera animatu zirenei. Bazkalostean negozio ederra egin zuten paixek txapelak saltzen, datorren urtean ere etorriko dira horrela.



■ Txarangarekin gorputza ederto mugitu zuen batek baino gehiagok



■ Kamisetak esaldi originalekin beteta zeuden, hauenean zer jartzen ete du?



■ Astronautak espaziora heldu ete ziren?

## IRIARTE

Umeen  
denda  
eta  
lentzeria



Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)

## Jauregi Okindegia

Otalóra, 10  
Tel.: 943 79 57 47

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana, 9  
Tel.: 943 79 19 79



# Lasai

Miriam Mantecó  
MASAJISTA

Masaje terapéuticos  
Postura ezkerketa  
eta egokitzea diplomatu

## ZERBITZUAK

Osteopatia: Kraneala

Estrukturala  
Funtzionala

Lotura muskularrak

\* Aurrez lekua eskatu 943 77 04 34



**b** **berbetan**  
HIZKUNTZ ESKOLA

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA

Belorrieta, 4

20550 Aretxabaleta

Tel./Fax: 943 79 00 69

Bulego ordutegia: arratsaldeko 4etatik 7etara

Ingelesa

Frantsesa

Alemana

*Maila guztiak*

*(First Certificate of Cambridge, ...)*

*Klaseak goizez eta arratsaldez*


*Adin guztiak*

2001 - 2002 ikasturtea  
Matrikula EPEA: IRAILAREN 5etik 21era



**Dinamismoa eta ekonomia  
beti aurrenak izateko**



**NORTE GARAJEAK, S.L. OPEL** 

Basabe poligonoa A-13 20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 20 03 Fax: 94377 16 20

**Irailaren 10 arte**  
Goizez: 6:00-13:00  
Zure zerbitzura

**Araba Ibilbidea**  
**20550 ARETXABALETA**

**Industrialdea F-0-4**

**Tfnoa.: 943 79 18 44**


**Faxa: 943 79 29 41**

**E-mail: info@eguzkigraf.com**

Urtean zehar...  
bulegoko ordutegia:

7:30 - 12:30

14:00 - 17:15




**EGUZKIGRAF**





■ Gerizpetan gustura gustura egon ziren herri bazkarira joan zirenak



■ Non dago ba baloia?



■ Ai ene! Noruntz etorriko ete da zezena?



■ Mariatxiak ala Mariatxen?



■ Aulkiari bueltaka eta zezenari ihesi





### ■ 500 PEZETAN, ONAK ETA MERKE MERKE!

Esaldi horrekin, txapel mordoak saldu zituzten jaietan herrira etorri ziren marokiarrek. Tratulari finak izateaz gain, euskaraz ere edarto zekitela erakutsi zuten.



### ■ AI, AI, AI!

Baten batek gertu gertutik ikusi zituen zezenaren adarrak sokamuturrean. Eskerrak heziari bestela...



### ■ SIESTARAKO OHE BIKAINA

Bazkal osteko lokuluxkatxoa egiten harrapatu gemituen goiko argazkiko neska hauek. Antza denez etxeko ohea baino herriko plazakoa hobea iruditu zitzaaien begiak itxi eta zurrunkan egiteko.



### ■ PUTZ ETA PUTZ

Xabierrek Andramaietako hirugarren egunean artean ondo zituen hauspoak.



### ■ KOLORE DANETAKO TXAPELAK

Koadrila honetakoak behintzat ez ziren be-rehalakoan galduko herrian. Txapel koloretsuekin bikain animatu zituzten kaleak. Beste batzuk kamiseta edo praka berdinekin kaleratu ziren Andramaietako azken eguna ospatzeko. Koadrilen eguna aurten ere arrakastatsua izan zen duda barik.





## Azken garra

Opor egunak bukatuz doaz. Askok eta askok ahaztuta izango dituzue oporretako une goxoak, edo ahaztezinak beharbada, baina baina batzuk oporren azken garrez gozaten ibiliko zarete, bejondeizuela horrela bada.

Baina ale honek ahaztuta genituen opor egunak eta Andramaixak gogora ekarri dizkigu. Aurtengo Andramaixez orokorrean herri-tarrek oso iritzi ona azaldu dute. Hori bai batzuen esanetan, zezenek asko iraun dute, eta hirugarrenean izan ezik txarangak falta ziren kalean. Egunez egun jaiak gogoratuz, abuztuaren 14ean, bezperan, mus zaletu asko batu zen herriko plazan. Irabazleak **Pello Zubizarreta eta Zabalo** izan ziren, final gogorra jokatu zuten hauek **Manu eta Benitoren** aurka. Bolo txapelketan, barrez, irabazlea **Ituiño** izan zen. Andra Mari egunez jendea oso dotore atera zen kalera. Aurtengo honetan Trintxerpeko bandaren inguruko kontua baino beste bat zebilen herri-tarren ahotan. **Maria Rosario Arrue** PPko zinegotzia lau bizkarzainekin etorri zen meza nagusira, eta hauxe izan zen jendearen ahotan ibili zen txutxumutxua. Egun horretan Aukeraren dantza taldeak eskaini-

tako emanaldiak piztu zuen garra. Jendeak asko gozatu zuen ekitaldiaz, eta ondorioz, merezitako txalo zaparrada jaso zuen taldeak.

Bigarren eguna txirridulariek esnatu zuten. Aurtengo txapeliduna **Markel Irizar** Olarra taldeko oñatiarra izan zen. Talde berekoa den **Asier Atxa** ere gogor aritu zen eta hasierako postutan helmugaratu zen.

Pilotak ere izan zuen bere arrakasta. Betiko moduan frontoia bete-bete egin zen pilotari profesionalak ikusteko.

Presoak ere gogoan izan ziren jaietan. Euskal presoak Euskal Herrira plataformak antolatuta lagun ugari elkartu zen plazako arku-petan, badaezpada ere aterpean. Hantxe aritu ziren, **Fredi Paia eta Arkaitz Estiballez** bertsolariak bazkal ostea alaitzen.

Ohikoa den moduan hirugarrena izan zen egunik girotuena. Koadrilak, txarangak, antzerkiak... Jaietara emateko **Maria-txen Urkiak** ahots zoragarria duela erakutsi zigun barriro ere.

Beste makina bat kontu ere izan dira jaietan, baina danentzako lekurik ez dagoenez, kontatu ditugunak kontatuta agurtuko gara.

*M. J. Antzaga*

*Bi lankidek sortu zuten orain hogeita hamar urte ARNO enpresa Mutrikun. Ordutik etxean hazitako zezenekin lan egiten dute jairik jai. Batzuk zezenaren aurrean korrika egiten duten bitartean, eurak zezenaren atzetik ibiltzen dira. Agustin Mugarza beteranoa dugu herrian.*

## Agustin Mugarza

"Zezenak ez daude  
kalean ibiltzera  
ohituta"



- Zenbat urte daramatzazu zezenekin lanean?
- Hogeita hamar urtetik gora, egia esan nik ere ez dakit ziur noiztik nabilen negozio honetan.
- Eta Andramaixetara noiztik etortzen zarete?
- Nire ustez orain dela hamabost urte etorri ginen lehenengo aldiz.
- Zezenak zuk hazten dituzu?
- Bai, etxean izaten ditugu txikitatik. Orain gutxi-gorabehera 200 bat buru ditugu.
- Aurten Andramaixetan ibili diren zezenak zein adin dute?
- Adin desberdinetakoak izaten dira. Batzuetan bost edo sei hilabeteko zezenekin ibili ohi gara. Hauek umeentzako izaten dira. Sokamuturrerako, barrez, bostetik zazpi urte bitarteko zezenak ekartzen ditugu.
- Asko sufritzen dute zezenek sokamuturrean?
- Bai, kalean ibiltzera ez daude ohituta eta hanketatik nahiko txarto amaitzen dute. Horregatik goizean batzuk eta arratsaldean beste batzuk ateratzen ditugu. Gainera sokamuturrean ibili ondoren egun batzuetan atsedean hartzen uzten ditugu.
- Eta zahartzen direnean zer egiten zaie?
- Beste ganadua moduan okelarako hiltzen ditugu.
- Zenbat herritara joaten zarete jaietan?
- Umeentzako zezen txikiekin lan handia egiten dugu. Gutxi-gorabehera hogeibat herritan aritzen gara, gehienetan Araba, Nafarroa eta hemen Gizpukoan ibiltzen gara.
- Lanbide gogorra da zurea?
- Bueno, gu gaztetatik hasi gara lan honetan, gainera, afizio handia daukagu, beraz, nirentzat ez da oso lan gogorra.
- Sekula istripu larririk izan duzue zezenekin?
- Ez, kolpe batzuk beti izaten dira, baina nahikoa zorte izan dugu betik.





# A

## Atalataikoan gelditu barik

ndramaixa bigarrean ataratako erretratua duze honako hau, 1954. urtekoa. San Roke egunez meza nagusia izaten zen lehenengo, eta horren ondoren, bazkaltzera joan aurretik kontzertua eta txikiteoa. Bazkal ostean pasakailea egoten zen, eta etxeetatik kalera ateratzen ziren guztiak. Pilota partiduak bostetan

hasten ziren, eta bitartean Mondraueko bandaren soinuaekin gazte zein nagusi herriaren mutur batetik bestera, goiko farmaziatik hasi eta Porrukueneraino pasakailean jaisten ziren.

Beste herrietako jaietara moduan Andramaixetara ere gonbidatu asko etortzen zen inguruko herrietatik. Argazkian ere ageri dira batzuk.

Erretratuan ageri diren atxabaltarrak honako hauek dira: **Mari Carmen Lopez, Miguel Igartua, Maria Jesus Arenaza (atzean), Ana Mari Aretxaga, Arantxa Zabala** (arraiaduna, eskuman). Hauekin batera erretratuan Oñatiko neska bat, Orioko mutil bat, bedoñar bat, aramaioar bat eta Atxurdingo bat daude.

**Maritxu**  
drogeria  
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24

**Dorleta**  
**taberna**


*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi, 8  
☎ 943 79 94 15

**BEGIBO**

**optika**

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

Jou Diaz  
  
Harakina

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAETA





# E

rretratu zahar hau 60. hamarkadako da. Orduan Andramaixetan laugarren eguna ere ospatzen zen. Abuztuaren 18a, umeen eguna izaten zen. Dantzari jantzita urteten ziren ume danak kalera, eta trikitilari

eta soinujoleen musikarekin dantzan egiten zuten. Goian ageri den neska koardilak hamalau eta hamar sei urte bitartean zeuzkan orduan.

Erretratuan goitik hasita honako neskek ageri dira:

**Loli Mayoral, Conchi Urzelai, Mari Jose Azkarretazabal, Pili Gorostiaga.**

Behean: **Lurdes Castro, Gloria Otxoa, Elena Arrese, Txaro Gorostiaga.**

Argazkia eta informazioa: **Loli Mayoral.**

# Ez eman oporrik zure osasunari!

*Irailaren 3tik zabalik! Matrikula zaituz!*

## Zerbitzu berriak

G.A.P. ( Gluteoak, abdominalak eta izterrak lantzeko saioak )

Aerobik Txiki eta Aikido Txiki

► *Denboraldi berrirako prezio eta deskontu bereziak*



**Zainduz**  
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA  
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

**Ilargi Plaza, 6 • Aretxabaleta • Tel.: 943 71 27 92 • Mob.: 658 75 80 12**



**IRAILA****3 ASTELEHENA****■ ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA**

Urtero moduan Aretxabaletatik Arantzazura peregrinazioa egingo da. Arantzazun penitentzia ekintza goizeko

11:00etan izango da bai euskaraz eta bai erdaraz. Meza nagusia eguerdiko 12:00etan izango da Santutegian.

**7 EGUAKOTXA****■ AGORREKO ANDRAMAIXAK**

16:30etik aurrera kanpai mota desberdinen joaldia egingo da. Gero usadioari jarraituz herriko gazteak tantai bila joango dira, bertan Martin Kabarrixa zintzilikatu eta tantaia jasoko da. Ondoren auzo afaria eta dantzaldia izango da Iñigorekin.

**8 ZAPATUA****■ AGORREKO ANDRAMAIXAK**

12:00etan meza nagusia. Ondoren luntxa eta kartel lehiaketako erakusketak. Arratsaldean jolasak, eta gauean dantzaldia Iñigorekin.

**9 DOMEKA****■ AGORREKO ANDRAMAIXAK**

Kurtzebarrira ibilaldia goizeko 10:00etan.

**■ KURTZEBARRI EGUNA**

Meza 11:00ak aldera izango da tontorrean. Ondoren salda eta txanpaina banatuko ditu Murrukixo mendi elkar-teak.

**OHARRA**

Irailaren 7an Arientzan kanpai mota desberdinenak joko dira 16:00etatik 17:30era bitartean. Kanpaiek ez dute berezko esangurarik izango.

**Zorion agurrak**

Nekane Kintas  
Irailak 11  
Zorionak amatxo.  
Adrian eta zure lagunak.



Aitor Irure  
Abuztuak 30  
Lagun eta familia-koen partetik belarritik tirakada pilotat eta zorionak. Animo!, ez da hain besterako.

**Jaiotakoak****■ Unai Bermudez Etxebarrieta**

Abuztuaren 19an.

**■ Asier Merino Altuna**

Abuztuaren 19an.

**Hildakoak****■ Candido Etxeandia Arregi**

Abuztuaren 3an. 79 urte.

**■ Eusebio Ziardegi Gallastegi**

Abuztuaren 13an. 96 urte.

**MEMESA****Industri hornidurak**

Tel.: 943 71 24 11  
Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

**M**obiliario  
**A**RENAZA

• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**TXILARRA****ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15  
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

**LASAGABASTER**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# Taberna eta jatetxeen gida

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



**Kafetegia  
eta  
taberna**

**H A I Z E A**

Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

## Amets taberna



**Taberna eta kafetegia**

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29

## Gurea taberna

*Eguneko menuak  
plater konbinatuak*

**GUREA**

Durana kalea • 943 79 20 64

## Basabe jatetxea

**Menu eta afariak**



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Arlutz taberna



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA: 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



**Zatoz gure musikaz gozatzera**

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

## Hirusta jatetxea

**Zatoz gure sukaldea ezagutzera**



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**

Tfno 714345



**Bazkariak  
eta afariak**

**Astelehenetan  
itxita**

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

## Baster alde jatetxea



**SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN**

Galartza auzoa  
© 943 79 24 58  
ARETXABALETA


## Expres akeitegia



Santa Kurtz, 16  
943 79 23 43

**zure gustoko giroa**

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**

Solohaundi-25 ARETXABALETA 943 79 68 57

## Josu taberna

*Josu  
harategia  
taberna*



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1  
Tel.: 943 77 03 08

## Taberna Berri

**Taberna Berri  
jatekua**



Durana, 26 • ARETXABALETA  
943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA






Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**



Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**